

MEREZIMENDUEN BAREMOA (30 PUNTU)

A.–Laneko esperientzia (14 puntu gehienez):

A.1. Udaletan, mankomunitateetan edo entitate publikoetan, zerbitzu anitzetako enplegatu lanean (E, D edo C maila) emandako urte bakoitzeko: 1 puntu, eta gehienez ere 12 puntu. Urte zatikiak proportzioan baloratuko dira.

A.2. Entitate pribatuetan, instalazioen mantentze-lanak egiten dituen zerbitzu anitzetako enplegatu gisa edo lanpostuarekin zerikusia duten beste lanpostu batzuetan emandako urte bakoitzeko: 0,5 puntu, eta gehienez ere 2 puntu.

B.–Prestakuntza osagarria (11 puntu):

B.1. Deialdirako eskatzen den titulazioaz gainera, lanpostuaren eginkizunekin ikusteko duten espezialitateetan erdi-mailako titulua, goi mailakoa edo LH IIkoa edo baliokideak izateagatik: 4 puntu titulu bakoitzeko (gehienez ere 4 puntu).

B.2. Lanpostuko eginkizunekin ikusteko duten prestakuntza ikastaroengatik, gehienez ere 4 puntu.

–20 orduko (gutxienezkoa) edo gehiagoko ikastaroak: 0,10 puntu, ikastaro bakoitzeko.

–50 orduko edo gehiagoko ikastaroak: 0,25 puntu, ikastaro bakoitzeko.

–100 orduko edo gehiagoko ikastaroak: 0,5 puntu, ikastaro bakoitzeko.

–150 orduko edo gehiagoko ikastaroak: puntu bat, ikastaro bakoitzeko.

–200 orduko edo gehiagoko ikastaroak: 1,50 puntu, ikastaro bakoitzeko.

B.3. Beste trebakuntza batzuk, gehienez ere 3 puntu.

Mota hauetako gidabaimenak izateagatik:

Puntuazio hau ez dago loturik B.2 puntukoarekin, eta ez da onartzen bikoiztasunik puntuazioan:

–B + E motako gidabaimena: elkarri lotutako ibilgailu multzoak, B motako gidabaimenarekin erabil daitezkeen trakzio-ibilgailu bat dutenak, eta atoi edo erdiatoi bat, 3500 kg-ko edo gutxiagoko gehieneko masa baimendua duena: 0,25 puntu.

–C1 motako gidabaimena: D1 edo D motetako gidabaimenekin gida daitezkeen automobilak ez bezalakoak, 3500 kg-tik gorako gehieneko masa baimendua dutenak, 7500 kg-ak gainditu gabe: 0,75 puntu.

–D motako gidabaimena, barnean duela obra publikoetako makinak erabiltzeko lizentzia edo hondeamakinak eta atzerako hondeamakinak erabiltzen dakiela frogatzen duen agiria: 1.5 puntu.

Beste titulu batzuk.

–Produktu fitosanitarioen aplikatzaile txartela: oinarrizko maila, 0,25 puntu.

–Produktu fitosanitarioen aplikatzaile txartela: maila kualifikatua, 0,75 puntu.

Aurreko apartatuetan adierazitako merezimenduak kontuan hartu ahal izateko, lan bizitzari buruzko txostena ere aurkeztu beharko da; Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emanen du txosten hori.

Egiaztatutako esperientzia baloratzean, urte osoa egiten ez duen aldiari proportzioan dagokiona emanen zaio.

Lanaldia osoa ez bada, orduan ere kalkulatu da kasuan kasuko proportzioaren arabera.

Merezimendu horiek frogatzeko, lan bizitzari buruzko txostenaz gain, entitate kontratatzaile publiko nahiz pribatuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, non agertuko baita zer lan mota egin den,

lanpostuaren maila, lanaldi mota eta lanaldiaren iraupena, eta kontratu horren iraupena. Epaimahaikideek dokumentazio hori erkatzen ahalko dute.

C) Euskaraz jakiteagatik, gehienez ere 5 puntu.

C.1) Euskaraz jakitea; EGA titulua edo Hizkuntza Eskola Ofizialaren Gaitasun Agiria aurkeztuta (C1 mailakoa): 5 puntu.

C.2) Titulurik eduki ezean, Hizkuntza Eskola Ofizialean gainditutako maila bakoitzagatik gehieneko puntuazioaren 1/5 emanen da; aldiz, 1/12, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitzeko.